

Ikastaroa: *Etorkizuneko mugikortasunak*

Irailak 12 eta 13

Entzungela, Guggenheim Bilbao Museoa

Babeslea: **VOLKSWAGEN**
AKTIENGESELLSCHAFT

Ikastaro honek mugikortasun globalak ekar ditzakeen ikuspegi eta balizko agertokirik aurreratuenak sakon aztertzeko aukera eskainiko du munduko eskola eta unibertsitate ospetsuenetako batzuek *Motion. Autos, Art, Architecture* erakusketarako garatu dituzten diseinu- eta teknologia-proiektuen aurkezpenetatik abiatuta. Norman Fosterrek Guggenheim Bilbao Museoarentzat tankeratutako erakusketa hori borobiltzen duen *Future* aretoan daude bilduta ekimen horiek guztiak, eta 2022ko apiriletik irailera bitartean ikusgai den erakustaldi horixe izango da, hain zuzen, UPV-EHUn udako ikastaro honen atze-oihala.

Ikastaroan izango diren hizlarien zerrendan, besteak beste, Royal College of Art, ETH Zurich, Umeå Unibertsitatea, TU Delft, MIT Media Lab, Yale Unibertsitatea, ArtCenter College of Design eta Tokioko eta Lurmutur Hiriko Unibertsitateetako ordezkariak egongo dira. Zeinek bere ikerketa aurkezteaz gain, hizlariak solasean arituko dira Guggenheim Bilbao Museoko eta Norman Foster Foundationeko arte-ardura taldeetako kideekin. Horrela, ikastaroak ahotsa emango die epe ertain edo luzeko etorkizun utopikoetara begira pentsatutako mugikortasun-ikuspegiak garatu dituzten nazioarteko ikasle-taldeen gidari izan dituzten diseinu-taldee. Asmoa zera da, tokiko eta planeta osoko ekonomien jasangarritasunari eta gizartearen etorkizunari buruzko galdera premiazkonetako batzuei heltzea.

Helburuak:

1. Ikastaroaren helburua mugikortasunaren etorkizun-aukeretan sakontzea da, baita diseinatzaile, teknologo eta ingeniari belaunaldi berriek jasangarritasunaren eta koexistentziaren agertoki berriak formulatzeko elkarlanerako duten gaitasunean ere.
2. Era berean, oraina aztertzeko estrategia indartsutzat hartu nahi da etorkizunerako proiektzio-ariketa hori, industria handiek azpiegituren inguruan dituzten narratibak etorkizunari aurrea hartzen dien fikziozko narratibekin lotzeko, baita diseinu espekulatiboaren inguruko narratibekin ere, kontuan hartuta maila globalean haiek izan direla kulturaren azken berrogeita hamar urteak markatu dituztenak.
3. Ikastaro honen bokazioa, beraz, zeharkakoa da argi eta garbi, eta elkarrekin ikasteko, hartu-emanerako eta transferentziarako plataforma izan nahi du mugikortasunaren gaiarekin lotutako arloetan diharduten profesional eta ikasleentzat; arlo horiek dira,

besteak beste, automobilgintzaren diseinua, arkitektura, hiri-plangintza, gizarte- eta ingurumen-zientziak eta, jakina, artea eta diseinua.

4. Era berean, hiri-ekosistemetan, landa-ekosistemetan eta ekosistema naturaletan giza eragileen eta gizaki ez diren eragileen artean garta litezkeen interakzioetarako gako berriak argituko dituzten hipotesiak sortzearen garrantzia sustatu nahi da, modu kritiko eta kokatuan egin ere.
5. Pertsonen eta merkantzien planeta-mailako garraioa, baso-berritzea eta energia-iturri berriak ere ikastaroko funtsezko gaiak izango dira, mugikortasunaren ikuspegiak automobilgintzaren eta mugikortasun pertsonalaren sektoretik harantz zabaltzeko xedearekin.
6. Helburua, azken batean, gai horiek jasagarritasuna, erresilientzia eta gizartearen sormen bidezko eraldaketa kontuan hartzen dituen hausnarketarako testuinguru batean jorratzea da, noiz eta desoreka planetario atzeraezina eragiteko arriskuan gauden honetan, bai zentzu ekologikoan, kulturalen eta materialean.

PROGRAMA

Irailak 12, 2022

- 15:00 Juan Ignacio Vidarte, Zuzendari Nagusia Gorka Moreno, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordearen ongietorri-hitzak. Jarraian, Lord Norman Fosterren irekiera-hitzaldia (birtuala)
- 15:20 Ikastarorako sarrera Manuel Cirauqui Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradunaren eskutik. Jarraian, Tony Jankowski eta Melanie Köcheler, Diseinu-estrategia saila, Volkswagen Future Center Europe (VFCE).

Parte-hartzaile guztiak Museoko aretoetara hurbilduko dira.

- 16:00 Erakusketa ezagutzeko bisitaldi azalpenduna, arte-ardura taldeko kideen eskutik: Esperanza Pino, Norman Foster Foundationen koordinatzailea; eta Manuel Cirauqui, Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna (*Motion*-eko areto historikoetan, *Future* aretoan eta galde-erantzunak).

Etenaldi labur baten ondoren, entzungelan ekingo diogu berriz saioari.

- 17:30 *I. atala: Aurrerapena.* Aurkezpenak : Philippa Tumubweinee (Lurmutur Hiriko Unibertsitatea, zoom-en bitartez), Kent Larson (MIT Media Lab, zoom-en bitartez), Salomon Frausto (TU Delft, zoom-en bitartez), Jay Sanders (ArtCenter College of Design, zoom-en bitartez) eta Manabu Chiba (Tokioko Unibertsitatea, zoom-en bitartez) eta, ondoren, mahai-ingurua.
- 19:30 Itxiera.

Irailak 13, 2022

- 09:30 *II. atala: Ekosistema berrietako mugikortasuna.* Aurkezpenak: Jonas Sandström (Umeå Unibertsitatea), Alfredo Hidalgo Rasmussen eta Xóchitl Arias (Tecnológico de Monterrey) eta Paz Morer (Nafarroako Unibertsitatea) eta, ondoren, mahai-ingurua.
- 11:30 Etenaldia.
- 11:45 *III. atala: Gizaki-osteko hiri-paisaiak.* Aurkezpenak: Mondragon Unibertsitatekoa (zehazteke), Eddie Eoh (Hongik Unibertsitatea zoom-en bitartez), Peter Russell eta Louise Holloway (Tsinghua Unibertsitatea) eta Matthias Kohler (ETH Zurich) eta, ondoren, mahai-ingurua.
- 13:45 Bazkalordua.
- 15:00 *IV. atala: Mugikortasuna espekulazio-ibilgailu gisa.* Aurkezpenak: Flora Gaetani (Politecnico di Milano), Gavin Hogben (Yale Unibertsitatea) eta Chris Thorpe (Royal College of Art) eta, ondoren, mahai-ingurua.
- 16:45 Parte-hartzaile guztien mahai-inguru orokorra eta eztabaida irekia.
- 17:30 Itxiera.